

Keike
Bigarren diskoarekin
sendoago

▣ *Ezpalak*
▣ *Argitalpenak*

▣ *Denbora-pasak*
▣ *Makina bat kontu*

Ihesi
Pirinioetako
zeharkaldia IV

ARGIA


erdiko kaira

kultura eta aisia

José Bergamín Txori pelegrinoa...

“Zergatik intelektuala izendatu eta ez literatoa? Bere literatura ideologiaz beteta dagoelako”. Horrela dio Xabier Sánchez Erauskin kazetariak *Larrun* aldizkarian egin genion elkarrizketan. Liburua idatzi du espainiar idazlearen bizitzaz, *José Bergamín. Ángel rebelde* (Foca, 2007). Idazle eta pentsalari sailka ezina zaigu Bergamín (Madril 1895 - Donostia 1983). 27ko belaunaldiko fantasma isildua, katu bizkorra, txori librea: “Libre da txoria bere hegaldian, haizeari obeditzen diolako” idatzi zion Erauskin haur kartzelan zela. Autoexilioan utzi zituen bere hezurak, errepublikano izan baitzen hilobira arte. Omenaldia jasoko du udazken aldera.

JOSE BERGAMÍN. ÁNGEL REBELDE



URKO APAOLAZA



Gutierrez Solanaren *La tertulia del café de Pombo* margo ezaguna (Reina Sofia museoa, Madril). José Bergamín gazte eta lotsati azaltzen zaigu bertan. Idazle madrildarrak bete-betean parte hartu zuen 27ko belaunaldiko mugimenduan eta lagun handiak izan zituen: Alberti, Machado, Pedro Salinas, Lorca, Romero de Torres, Guillen... Irudian Gomez de la Serna ageri da zutik: "Pepe Bergamín, kontenplazioz begira eta distraiturik, beti hagineko minez dabilen hori dirudi", idatzi zuen idazle abangoardistak.

...haizearekin libre

BURGES JAIO ZEN. Aitak zerriak eta ahuntzak zaintzen zituen Malagako mendietan, baina hirira egin zuenean, jurista ospetsu batek hartu eta mutil gizagaixoa abokatu eta politiko garrantzitsu bihurtu zuen, Madrilgo 1920ko urte zorionsuetan. Horregatik, José Bergamínek goi-klaseko giroa arnastu zuen txikitatik. Zuzenbide fakultateko errebolten eta kafe bohemioren bizitzan murgildu zen laster. Irakurriz elikatu zuen eskandalizatzeke abilezia eta lagun handiak izan zituen kapitaleko zirkulu literarioetan, 27ko belaunaldiko lagunak. José Bergamín pertsonaia deseroso bezain adeitsua zen, kritika zorrotzak egin zituen orduko literatur aldizkarietan, eta *El arte de bir-libirloque* (1930) liburuarekin, zezenketen munduari dimentsio metaforikoa eman zion.

Idazle konprometitua –“existitza pentsatzea da, eta pentsatzea konprometitzea”–, ezinagon horrek ardura politikoak hartzera eraman zuen. Errepublika iristear zela, Franco jeneralarekin Zaragozako akademian izandako bilera dugu horren adibide. Legaltasunarekin bat egiten zuela esan zion Francok Bergamíni. Gero, idazle madrildarrak “bi aldiz traidore”

deitu zion diktadoreari: “zure odolari eta zure aberriari”. Gerra lehertu zenean AEBtan, Sobiet Batasunean eta Parisen ibili zen kultura kontuak toreatzen. Ziutate honetan, Picassori eskatu zion mural bat egiteko Erakusketa Unibertsalerako eta *Guernicaren* jaiotza pintzelkadaz-pintzelkada ikusi zuen Juan Larrea poeta bilbotarrarekin batera. Bestalde, garai haietako zenbait adierazpenengatik kritika franko egin zizkieten. Izan ere, Bergamín Gobernu Errepublikanoaren alde azaldu zen anarkista eta estalinisten arteko liskarren erdian, eta hori askok ez zioten inoiz barkatu.

Dena galdu zenean, exilioa tokatu zitzaion, Mexikon lehenik –*España Peregrina* aldizkarian kultur gile exiliatu ugari bildu zituen–, Uruguain ondoren. Platako lurraldean ezin izan zuen barruko arra asetu eta Parisera itzuli zen, bere sorterritik gertu. Azkenik, 1958ko Gabonetan bueltatu zen Madrilera. Bergamín ez zen isilik egotekoa ordea; Caracaseko egunkari batean nahi zituenak eta bi esan zituen diktaduraren aurka, tauromakiaren errekurtsio gardenak erabiliz. Frankisten atzaparretan erori aurretik exiliora alde egin zuen berriz, Parisera.

68 maiatz “zoragarriaz” mozkorturik itzuli zen berriro etxera, Franco eta frankismoa gaixorik zeudela. Madrilgo giroan ito egiten zen baina, eta Euskal Herrira etorri zen, inposaturiko monarkiaren aurkako bere azken “errebolta” egitera. Burges jaio zen, eta disidente hil.

Unamuno maisu zuen aforista aldrebesa

“Tsildua izan zen, marjinatua”, dio Erauskinnek bere liburuan. Exilioan, Mexikon eta Frantzian laudorioak eta galoiak jaso zituen bitartean, bere herrian apartatu egin zuten, pertsonaia aldrebesa zelako: “27ko generaziokoaren artean ez da inon agertzen Bergamín” kexu da kazetaria.

Aitzitik, produkzio literario ikaragarri handia utzi zuen: antzerkiak, saiakerak, poesia –poeta “atzeratua” zela diote–, eta batez ere aipamenak eta aforismoak. Unamuno zuen maisu, gerra aurreko Hondarribiako oporraldietan Hendaian elkartzan zen “don Miguel”ekin eta hitz aspertu haiek betirako markatu zuten idazle gaztea. Unamunoren filosofia eta estilo literariotik edan zuen, hein handi batean, Bergamínnek. Alfonso Sastrek 1982an *Punto y Horan* egindako elkarrizketa batean honela zioen: “Jakina da maisu bat izan zela niretzako, irakasle baten guztiz kontrakoa”. Aforismo bergaminiarra amaigabea da, esaldi bakarrean doktrina bat hankaz gora jartzeko moduko arrazoiak botatzen zituen, ironia eta sarkasmoa erabiliz. Zera esaten zuen askotan: “Ni, komunistekin hilobira arte joateko prest nago, baino pauso bat gehiago ez!”.

Bergamínnek hitzetan eta poesian probokazioa eta inkonformismoa aurki ditzakegu, ustekabeko ateraldiak ezin sartu daitezke inongo korrontetan: *Fantasma de hoy por hoy, / por ayer y por mañana / a mi no me da la gana / que nadie sepa quien soy!* (Gaur egungo fantasma / atzokoa eta biharkoa / niri ez dit gogorik ematen / inork jakiterik zein naizen!). Fantasma, txori edo katu beltzen mozorro artean zora-biatzen gaitu Bergamínnek, baina aldi berean

Goiko argazkian; Rosario Arniches-ekin bere ezkontza egunean (1928). Eskuinean García Lorca ageri da. Granadarrak *Poeta en Nueva York*-en eskuizkribua utzi zion etxean Bergamín 1936an, “bihar itzuliko naiz” esaten zuen oharrarekin batera. Baina, hurrengo egunean, Granadara bidean fusilatu zuten poeta. Bergamínnek Séneca argialetxea sortu eta bertan kaleratu zituen Lorcaren poesia ezagunak. Beheko irudian; ezker abertzalearen mitin batean (1982).



“historiari mozorroa kentzen dio”, Maria Zambrano pentsalariaren esanetan.

Sánchez Erauskinnek berriki argitaraturiko liburuan honela dio: “Bere maila literarioa, gaitz esanez eta sektarismoz harago, zalantza ezina da. XX. mendeko Espainiako letra gizon handienetako bat da, dudarik gabe”.

“Pekatarari baino pikadore”

Asko izan dira salatu dutenak Jose Bergamínnek jasandako bazterketa. Rafael Albertik ere

**ZIENTZIA
IRAKURLE
ORORENTZAT**

Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak duela hiru urte abian jarritako ekimena da ZIO (Zientzia Irakurle Orotentzat). Bizkaiko Foru Aldundia eta Babesa duen bilduma honen xedea ezagutzeko edonoren esku jarzea da, liburu interesgarriak, entretenigarriak eta kalitatezkoak eskainiz. Oraingoz, bost dira bilduma osatzen duten lanak. Zientziara hurbiltzeko tresna fresko eta erabilgarriak ZIOk dakartzanak.

gure artean euskaraz

Omenaldia eta isiltasuna

José Bergamín. *Ángel rebelde* liburuaren aurkezpenean Xabier Sánchez Erauskinek aurreratu zuenez Bergamíni omenaldia egitekotan dira udazken honetan Hondarrribian, bere hilobian. Horretaz gain, idazleari buruzko aste bat antolatu nahi dute, hitzaldi eta abarrekin. Aurkezpenean Miguel Castells abokatuak ere hitz egin zuen, eta idazle polifazetikoaren lagun minak, harekin izandako gertaera ugari kontatu zituen.

Isiltasunaren itzala

ARGIari egindako adierazpenetan, Sánchez Erauskin kexu da liburuak izandako oihartzun eskasagatik: “Badirudi Bergamínen inguruko isiltasunak itzal handia duela oraindik, liburu honengana isiltasuna horren adierazle da”, dio kazetariak.

<http://www.argia.com/argia-astekaria>

helbidean, liburuaren aurkezpenaren bideoa, Sánchez Erauskin eta Castellsen hitzekin.

JOSE BERGAMÍN. ÁNGEL REBELDE



Bergamínen
hilaria
Hondarrribian

halaxe egin zuen eta prosa ederrez deskribatu zuen bere laguna: “pekatari baino pikadore, inkisidore berriren baten surako brasa ona”. Ez zituen Eliza kontuak alferrik aieratu poeta itsasokoak. Izan ere, izaera iraultzaile eta errepublikanoko idazleak “katoliko, apostoliko eta romano”tzat zuen bere burua.

Amaren folklore andaluziarretik zetorkion herentzia sinestuna. Baina katoliko librea zen, heterodoxoa guztiz, laster egin baitzuen Eliza dogmatikoaren kontra: “Teologia deabruaren logika da”, esango zuen gerra aurreko gazte garaian, eta berdin pentsatzen segitu zuen zahartzarora arte. Behin, Joaquín Navarro abokatuaren etxean bildu ziren lagun batzuk, Gabriel Celaya eta Bergamín tartean. Aita Santua Loiolara joatekotan zen egun horietan eta hone-la esan zuen aforistikak denen harridurarako: “Aita Santua hil behar da eta nik nire burua aurkezten dut horretarako”. Noski, Celayak ezin izan zuen afaltzen jarraitu probokazio horren aurrean.

Sinestuna zen ordea, Jainkoan eta Deabruan sinisten zuen eta horrela erakutsi zuen *Cruz y Raya* aldizkariaren bidez. Beraz, pertsona deserosoa genuen katolikoentzat ere pertsonaia ziri-katzaile hau.

Irudian; Alberti eta Bergamín Madrilgo Las Ventas zezen plazan. Bergamínek hainbat sari jaso zituen bere bizitzaren amaieran, eta Cervantes literatur sarirako ere hautagai izan zen. Baina ez zioten eman “sari politikoa” zelako bere ustez. “Ez dira sarituentzako sariak bakarrik izaten, saritu ez direnentzako zigorrak ere badira”, esan zuen.

Autoexilioa Euskal Herrian, heriotzaren bila

“Gure Errepublika (...) errebelatzen hasi da garbi asko Euskadin, horregatik garrasi bat egin nahi nuke (nire isiltasunarekin botatzen dudan garrasia, nire ahotsarekin baino): Biba Euskadi! Biba Errepublika!”. 1979an Madrilgo Cuatro Caminosen egin zen mitin errepublikarrean aurpegia aldatu zitzaion bati baino gehiagori. Ez zen beroaldi bat izan. Trantsizioko desengainuak jota bota zituen hitz horiek Bergamínek, Madrilgo giro petralaz eta “monarkia frankistaz” nazkatutik.

Euskal Herriko egoera politikoak Errepublikaren ideiak haragitzen zituen bere ustez. Huelvako Fuente Heridosen, atsedean hartzen ari zela, zera erabaki zuen: Euskal Herrira etorriko zen, Donostiara. Unamunorekin edo Telesforo Monzonekin ibilitako garaiak gogoratzeko aukera izan zuen horrela, Miguel Castells abokatuak eta alaba Teresa lagunduta. Baina Euskal Herriko azkeneko urteak ez ziren bisita soilak izan, laurogeitaka urterekin Herri Batasuneko mitinetan parte hartu zuen eta *Egin* egunkarian kolaboratzen jarraitu zuen. Gainera, Sánchez Erauskinen kontrako epaiketan deklaratu zuen Aviranetarena eginez.

“Izango al da Euskal Herria, Pepe, zure bizitza pelegirinoaren zorioneko helmuga?” galdetu zion Sastrek. Hala dirudi, bertan aurkitu baitzuen heriotza: “bera itxaron behar izan gabe”. ■

JOSE BERGAMÍN.
ÁNGEL REBELDE